



BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIAK, bere gaur arteko ibilbidean, bi zuzendari izan ditu. Biak ere sona handikoak, soziolinguistikaren gaietan murgilduta dabilen edonorentzat. Aldizkariaren lehenengo hamar urteetan Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegia” izan zen BAT aldizkariaren zuzendari. 2001eko irailetik 2006ko abendura, berriz, Maria-Jose Azurmendi izan dugu aldizkariaren zuzendari lanetan. Orain, ordea, berak hala erabakita, aldizkariaren kargu hori utzi egin du.

Mezu labur honen bidez, esker-oneko hitzak helarazi nahi dizkiogu Maria-Joseri. Aldizkariaren batzordea osatzen dugun kide guztiok zinez esker-tu nahi diogu urte hauetan guztietan egin duen lan handia. Ekarpen aberatsa izan da aldizkariarentzat soziolinguistikari aditua den bera bezalako pertsona batena, zalan-tzarik gabe. Ez gara hemen egin dituen guztiak gogoratzen hasiko, baina bere lanerako prestutasuna, baikortasuna, eta pazientzia hori, behintzat, nabarmendu nahi genituzke. Mila esker, Maria-Jose, eskaini diguzun guztiarengatik!

Bertan izango dugu, ordea, aurrerantzean ere Maria-Jose, eta poztekoa da hori aldizkarian lanean ari garenontzat. BAT aldizkariaren batzordekide izaten jarraituko du, eta bere ekarpena ere aldizkarian jasoko dugu, beraz.

Bidelagun izaten jarraituko dugu, Maria-Jose, soziolinguistikaren bide-zidorretan.

Besarkada bero bat eta eskerrik beroena, gu guztion partetik! •

BAT aldizkariaren Argitalpen Batzordea